

**“THÉRÈSE” FILMEA**

Alain Cavalier zinemagilearen film bat dogu Tèreše. Baditugu Teresa Liseuxkoari buruz beste film batzuk be. **Besteak beste**, Julien Duvivieren “La vie miraculeuse de Thérèse”, 1930. urtekoa. André Haguetek, 1952. urtean, egingo dau “Procès au Vatican” eta Philippe Agostineren “Le vrai visage de Tèreše de Liseiux” 1964koa dogu. Michel Farinen “Histoire printanière d’une petite fleur Blanche” eta Leonardo Defilipisen “The story Saint Terese of Lisieux”, hurrenez hurren 1997 eta 2004 egin-dakoak ditugu.

1986. urtean sortu eban Alain Cavalier zinemagileak bere Tèreše. Urte bereko Canneseko zinemaldian egundoko arrakasta lortzen dau. Ikusleak hogei minututik gora txalotzen da-be eta zinemaldiko epaimahaiaren saria be jasoko dau. **Hurrengo** urtean, Frantziako sei “Cesar” sari irabazten ditu. “Cesar” sariak hemengo “Goya” sarien antzekoak dira. Hori bai, zinema munduan, “Cesar” sariak, “Goya” sariak baino oihartzun zabalagoa dauke. 1995. urtean, Vatikanok, zinemaren mendeurrenean, hamabost film erlijiosoan artean, Alain Cavalieren “Thérèse” aukeratuko dau. Baina 25 urte igaroko dira, film hau gaztelerara bikoiztu arte. Eta gure arteko zinema-kritikarien artean be harrera ona izan dau.

Tèrešeren papera Catherine Mouchet antzezleak egiten dau. Ondo baino hobeto beteten dau bere lana. Hor bai izan dauala

zinemagileak begi ona. Ez dakit beste artista batek hain ondo antzestu leikenik Teresitaren irribarre goxoa, sentiberetasun fina, kementasun handia momentu latzetan, tolesgabeko umiltasuna, samurtasun naturala, bihotz handitasuna, izaera baretsu eta umoretsua. Hilzorian, osagile potoloaren lepotik egiten dauan keinua benetan polita!


### **Jaungoikoagaz enamoratuta**

Film honen egileak ez dau nahi izan Santa Teresitaren bizi-tza guztia kontatzea. Bere asmo nagusia beste hau da: gazte honen eta Jaungoikoaren arteko topaketa sakona nabaritzea. Eta hori filmaren hasieratik amaieraino ikusten da. Pranziniren Jaungoikoagana itzultzeaz hasten da filma eta berehala eskatzen deutso bere aitari karmeldar izateko baimena esaldi txundigarri honegaz: “Jaungoikoagaz enamoratuta nago eta...”. Eta Liburu Santuko Abesti Ederrenaren pasarte zoragarri hau entzuten da: “Lo nengoan, nire bihotza iratzaririk; eta neuri dei egiten entzuten dot nire maitea: Zabaldu egidazu, ene maite, nire uso orbangabe horrek: burua iruntsez bustita daukat, eta nire kiriñauak gaueko iñontzaz”.

Eta filmaren amaieran, Thérèseri, gorputza biriketako gaitzaz jota eta arimea “gau ilunean” dituala, oihu mingarri honek urten deutso barnetik: “Ez dot ezer ikusten izarretaraino jasoten dan horma baltz bat baino”. Eta orduan be Abesti Ederrenaren hitzak jatorkoz gogora arimako izuak astintzeko: “Arren bai arren dirautsuet: neure maitea aurkitzen badozue, esan egiozue... maitasunez geixorik nagoala”.

Ez bakarrik filmaren hasieran eta amaieran, baita karmeldar gaztearen bizitzan zehar be bere Jaungoikoaganako egiazko maitasuna ikusten da. Hortxe laburbiltzen dau zinemagileak “Thérèse”ren misterio guztia. Horixe besterik ez da kristau mistikaren muina. Gogoko jako Alain Cavalierr “Thérèse” gazteak, Franziniren aldatze ondoren, bere odolaz idazten dauan esker oneko otoitz hau: “Eskerrak, Jesus”.

"THÉRÈSE" FILMEA



MAURICE BERNART  
PRÉSENTE

L'ÉTONNANTE HISTOIRE DE  
SAINTE THÉRÈSE DE LISIEUX  
CANONISÉE EN 1925

PRIX  
DU  
JURY  
CANNES 1986

LE FILM  
AUX  
6 CESARS

*Thérèse*

UN FILM DE  
**ALAIN CAVALIER**  
DIRE

Catherine MOUCHET, Hélène ALEXANDRIDIS, Aurore PRIETO, Sylvie HABAUT, Clémence MASSART, Ghistaine MONA HEFTRE

image Philippe ROUSSELOT - montage Isabelle DEDIEU - Une coproduction AFC / FILMS A2 / CMC

costumes Yvette BONNAY - décor Bernard EVEIN

musique Jacques OFFENBACH / Gabriel FAURÉ

*Dream*  
FILMS

PolyGram Video

ELIZA

111

Horretarako, hain zuzen, zinemagileak eszenografia oso sinplea darabil. Atzealdean horma argi-ilun bat. Eszenen arabera horma hori ilunago edo pixkat argitsuago agertzen da. Baliabide gitxi, lar pobreak baina sinboloz beterikoak: burdin hesi bat, ohe bat, mahai bat, loratxo batzuk, pare bat aulki eta abar. Gauza sinple honeek beste Norbaitengana daroe. Eta Horren presentzia isila da Thérèsek eta komentuko beste lekaimeak bilatu eta bizi dabena. Apropos darabilz zinemagileak baliabide arruntak lekaimeen aurpegiak azpimarratzeko.

### **Momentu hunkigarriak**

Baditu momentu hunkigarriak film honek. Erromako Aita Santuari hamabost urtekin karmeldar izateko baimena eskatzen deutsonean edo komentuan sartzen danean, bere lagun eta senideak agurtu ondoren, aitaren aurrean bedeinkapena hartzeko belaunikatzen danean, aita bera be belaunikatu egiten da alabatxo kutunaren bekokian gurutzearen seinalea eginez. Bihotza dardar jarten dauan une zirrargarria benetan!

Gabon gauean, lekaimeak alkarri parkamena eskatuz eta besarkatuz, Jesus Umearen iruditxo besoetan hartuta pozarren dantzan dihardue. Honeen pozak ez dauko amairik. Honeen poz iturria Jaungoikoaren gizon egitearen ontasun amaigabea datza. Horixe da zinemagileak nahi dauana erakutsi.

Filmaren amaierako bizpahiru sekuentziak bihotza be haustuta izten dabe. Bata bestea baino dardargarriagoak. Nahizta sufrimentuz josita egon, Thérèsek ez ditu galduko bere umore ona, bere maitasun garbia eta bere sinismen sakona.

Ohean etzunda minaren minez itobeharrean aurkitzen da. Bera zaintzen egoan ahizta Zelinari arnasestuka dinotso:

Thérèse: Itzel sufritzen nago!

Zelina: Egizu otoitz!

Thérèse: Otoitzean nago!

Zelina: Zer esaten deutzazu Jesusi?

Thérèse: Ezer be ez!

Zelina: Eta berak?

Thérèse: Ezer be ez!

Zelina: Ozenki errezatu behar deutzazu, gor dago eta!

Thérèse: Arnasa hartzen dodan bakotxean, esango dot:  
"min daukot" eta zuk erantzun: "hobeto!"

Zelina: Ez!

Thérèse: Sufritzen nago!

Zelina: Ez!

Berehalaxe, samurtasunez beterik almohada gainean daukon gurutzetxua abanikatzen hasten da, esanez: "Gizajoa, bakkarik aurkitzen da!". Eta dinotso bere beste ahizta kutunari: "Maitasun erakuspen bat nahi deutzut egin" (eta mantapetik hanka bata atera eta oinagaz Paulinari matraila laztantzen deutzoso); "holako maitasunezko erakuspenik ez deutzu inok inoiz egin". Eta Paulinak dirautso: "Zenbat sentituko dogun zure hutsune handia!". Eta Thérèsek: "Lorak bialduko deutzuedaz"!

## **Momentu gogorak**

Badira momentu latzak be filmean. Bi besterik ez ditut aita-tuko. Bata Lucie lekaime gaztearen porrota. Bestea, ostera, osagilearen eta komentuko nagusiaren arteko buruz buruko eta kontsesio bako alkarrizketa gogorra Térèseren oinazeen aurrean.

Filmean zehar, Lucie mojea agertzen da Thérèseren kontra-puntu legez. Biak gazteak, biak komentu berean bizi dira, biak bokazio bardina jaso dabe. Baina alde ederra dago bion artean. Thérèse Jaungoikoaren maitasunaz urtzen eta Lucie, ostera, frustrazioz hondatuta. Thérèsengan hustuko ditu bere barneko etsipenak. Beragan konfiantza osoa jarten dau. Haren bihotz garbia eta samurra beti zabalik aurkituko dau bere de-sengainuak entzuteko.

Behin dinotso Thérèseri: “Hau be bada izatekoa! Orain 2000 urte bizi zan gizon bati jarraitu nahi deutsagu eta ez dakigu existitu zanik be...” Beste behin, komunitateko lixiba egiten ziharduela papertxo baten idazten deutso: “Komentuko nagusiaren familiakoen erropak garbitzen gabilz. Gu lekaimeak barik, neskame errukarri batzuk baino ez gara...” Holantxe beti gure Lucie bere barruko garraztasunak botatzen. Térèsek samurtasunez beteriko patzientziaz entzungo deutso. Baita erantzun zuzenak eta jatorrak emon be.

Thérèseren azkena lar gainean dagoala sumatzean, lur jota geratzen da Lucie. Ez daki zer egin be! Bere burua hiltzearren edo Thérèseren destinoaz bat egitearren, honen tuberkulosiaz kutsatutako gorroak irunsten ditu... Eta kutxan gordeta daukon bere ezkongai jantzi zuria atezuan ipinita agurtzen dau betiko Thérèse. Leihotik salto egin eta ihes doa komentutik. Mingarrizko azken agurra!

Bitartean, Thérèsek azken arnasa emon arteraino, bere otoi-tza, maitasuna eta oinazeak Lucie errukariaren alde eskaintzen jardungo dau. Lucie ez zan izan gauza bere gizakizko amorea Jaungoikoren amoreaz gainditzeko. Hortxe dago haren drama larria.

### **Alkarrizketa latza**

Medikuaren eta komentuko priorearen arteko alkarrizketa benetan gogorra. Ez dabilz txantxetan, ez! Thérèse auskultau ondoren, bat-batean hasten da alkarrizketa. Bata eta bestea irmo ari dira.

Medikua: Oso geixorik dago.

Priorea: Ezin leiteke izan.

Medikua: Birika bata, oso txarto dauko.

Priorea: Ez dot uste.

Medikua: Tuberkulosiaz jota dago.

Priorea: Oker zagoz.

Medikua: Nire lankideak ziurtatuko deutsu.

Priorea: Ez eustan ezertxo be aitatu.

Medikua: Bakotxak bere jokabideak daukoz. Niri neuri egia garbi esatea gustatzen jat. Horra hor errezeta: Kanforagaz igurtzi, bentosak, morfina injekzioak ipini...

Priorea: Holakorik, ez!

Medikua: Penak arintzeko baino ez dira.

Priorea: Ez da beharrezkoa.

Medikua: Bai, bada!

Priorea: Ez dau nahiko hartu, ikusiko dozu.

Medikua: Galdetuko deutsat.

Priorea: Karmeldar lekaime bat bere Senarraren antzera sufritzeko dago munduan.

Medikua: Berak egun bat besterik ez eban sufridu.

Priorea: Mundua amaitu arteraino hiltzorian daukagu. Nigaitik, zugaitik, gure pekatu guztiakaitik.

Medikua: Higuingarria da sufritzea.

Priorea: Hemen, ez.

Medikua: Hemen pasatzen dana jendeak baleki, komentua be erre egingo leuke.

Priorea: Baleiteke... Zenbat emon behar deutsut?

Medikua: Badakizu, ezer be ez. Hona hemen errezeta (prioreak ez deutso hartzen)... Gurasoei esango deutset.

Priorea: Hilda dagoz.

Medikua: Zu arriskutsua zara.

Priorea: Munduaren gatza gara gu.

Aurrez aurre jarten ditu zinemagileak medikuaren eta ama nagusiaren arrazoiak. Biak ditue euren arrazoiak. Nahiz eta morfina eta munduko botika guztiak hartu, sufrimendua eta heriotza hor izango dira. Thérèsek sufrimendua eta heriotza maitasunaz gaindituko ditu. Zinemagilearen ustetan, hortxe dago koska.

Filmean zehar “neurri eta lege bako” maitasunaren zirrara sentitzen da. “Maitasunez bizitzea” izango da “Thérèse” filmaren mezu nagusia. Jaungoikoaganako eta pertsonenganako neurribako maitasun garbia. Maitasuna izango da beraren sekretua. Horregaitik hain erraz maitemintzen gaitu Thérèseren bizitzak. Maitasun barik ez dau merezi bizitzeak!...

*A. Olea.*